

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

**HAUR HEZKUNTZA eta  
LEHEN HEZKUNTZAKO  
GRADU AMAIERAKO  
LANAREN GIDA**

(Practicum eta GRAL Azpibatzerdeak berrikusia eta onartua  
2024ko abenduaren 10eko bileran)

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	<b>2</b>
<b>1. HELBURUAK ETA GAITASUNAK</b> .....	<b>3</b>
<b>2. PROZESU ADMINISTRATIBOA</b> .....	<b>4</b>
2.1. Hasierako urratsak.....	4
2.2. Lana ADDI gordailuan uztea .....	5
2.3. Defentsa .....	6
<b>3. PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK</b> .....	<b>7</b>
3.1. Zuzendariaren eginkizunak.....	7
3.2. Ikasleen eginkizunak.....	7
3.3. Dekanordetzaren eginkizunak.....	8
3.4. Epaimahaiko buruaren eginkizunak.....	8
3.5. Epaimahaiaren eginkizunak.....	9
<b>4. PROZESU AKADEMIKOA</b> .....	<b>10</b>
4.1. Gaia aukeratzea.....	10
4.2. Tutorizazioa.....	10
4.3. Faseak, gaitasun espezifikoak eta ikaskuntzaren emaitzak.....	11
4.4. Idatzizko txostena .....	13
4.5. Ahozko defentsa.....	14
<b>5. EBALUAZIOA</b> .....	<b>15</b>
5.1. Ebaluatzaileak .....	15
5.2. Kalifikazioa.....	15
5.3. Ebaluazio txostenak.....	16
<b>6. DOKUMENTAZIOA</b> .....	<b>19</b>
6.1. Ikasleak .....	19
6.2. Zuzendaria .....	19
6.3. Epaimahaikideak .....	19

## SARRERA

822/2021 Errege Dekretuak, irailaren 28koak, 1393/2007 Errege Dekretua ordeztzen du eta unibertsitateko ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen ditu. Dekretu berriak xedatzen duenez, titulu ofiziala eskuratzeko nahitaezkoa da Gradu Amaierako Lana egin eta gainditzea. Hala, ikasleak erakutsi eta egiaztatu behar du menperatu egiten dituela graduko unibertsitate titulu ofiziala definitzen duten ezagutza eta gaitasunak, eta badakiela horiek aplikatzen.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegiak, honela dio 2. artikuluko 1. puntuan: "Gradu amaierako lana egiteko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.

GRALak egile bakar bat izan behar du: ikasle bakoitzak, bakarka, egin behar du bere GRALa (planteamendua, garapena eta idazteko lana), eta ezin da beste inorekin elkarlanean egin. Lan autonomoa da, ikasle bakoitzak bere ekimenez egingo duena eta bere gain hartuta lana garatzeko erantzukizuna. Horretarako, zuzendari baten laguntza izango du, zeinak bideratuko duen lana egiteko eta defentsa prestatzeko prozesua".

Gradu Amaierako Lanak gutxienez 6 kreditu balioko du titulu guztietan, eta gehienez 24 kreditu 240 kredituko tituluetan. Ikasketa planaren azken fasean egin behar da, unibertsitate edo ikastegi bakoitzak ezartzen dituen irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekitaldi publiko batean defendatu behar da gradu amaierako lanak, ikastegiak edo, hala badagokio, unibertsitateak ezarritako arautegian jaso legez.

**Hezkuntza eta Kirol Fakultatean** adostutakoaren arabera, Gradu Amaierako Lana (GRALa) 12 kredituko irakasgaia da eta, haren bidez, ikasle bakoitzak erakutsi behar du graduan eskatutako gaitasunak bereganatu dituela. Horretarako, "ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu

dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira". GRALa laugarren mailan egin behar da. **Prestakuntza, berrikuntza edo ikerketa proiektu bat izan behar da, eta formatu desberdinak izan ditzake. Ikasleak epaimahai baten aurrean defendatu beharko du.**

GRALa egiteko gida publiko bat dago, irakasle guztientzat berdina. Bestalde, GRALak men egin beharko dio ikastegian adostutako egutegi akademikoari. Zuzendari batek gidatuko du ikaslearen lana mintegien edo tutoretza saioen bitartez. **GRALaren ebaluaziorako kontuan hartuko dira bai idatzizko lana eta bai epaimahaiaren aurrean egin beharreko ahozko defentsa.**

## 1. HELBURUAK ETA GAITASUNAK

Lehenik eta behin, GRALaren xede nagusiak argitzea komeni da: "GRALa titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan – normalean, bere ikasketa gaiei lotutakoei buruzkoa-, gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izanda".

Aurrekoaren ildo beretik, hauek dira **GRALaren gaitasunak**, Unibertsitate Kontseiluak onartutakoaren arabera:

- Eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoa erabiltzea, teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea eta ezagutza berria sortzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin lotutako arazoak konpontzeko.
- Informazio egokia hautatzea, aztertzea eta sintetizatzea eskolatzeko prozesuak hobetzeko proiektuak diseinatze aldera.
- Autonomia erakustea: hausnartzean, argudiatzean, iritzi akademikoak eta profesionalak ematean, hezkuntza arloko erabakiak hartzean eta arazoak konpontzean, bai bakarka eta bai lantaldeen baitan.
- Komunikazio gaitasuna erakustea ahoz nahiz idatziz, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

## 2. PROZESU ADMINISTRATIBOA

### 2.1. Hasierako urratsak

#### 2.1.1. GRALa egiteko eta inskribatzeko betekizunak

**GRALerako gaia AUTOMATRIKULA egitean aukeratzen da.** Ezinbestekoa da **baldintza hauek** betetzea gaia hautatzeko:

- Gradua amaitzeko behar diren ikasgai guztietan matrikulatuta egotea.
- Gutxienez 168 kreditu gaindituta edukitzea.

#### 2.1.2 Gaia aukeratzea eta zuzendaria esleitzea

Sailek GRALerako proposatutako gaiak ekainean argitaratuko dira fakultatearen webgunean. Automatrikula prozesuan aukeratuko da gaia eta esleituiko da GRALerako zuzendaria. Ikasleek espediente akademikoaren arabera hurrenkeran hautatuko dute gaia. **Gaia aukeratuta, ikasleak bi ikasturtean zehar eduki ahal izango du zuzendari bera.** Ikasleak bi ikasturte horietan GRALa gainditzen ez badu, **zuzendariari eskatu ahal izango dio hirugarren ikasturte batez jarraitzea.** Zuzendariaren esku egongo da jarraitzea edo ez. Ikasleak **bi ikasturtean edo, salbuespen gisa, hiru ikasturtean (hirugarren horretarako aukera adostu badu)** GRALa gainditzen ez badu, prozesu osoa errepikatu beharko du eta, horretarako, beste **gai bat aukeratu beharko** du. Egoera horretara ailegatuta, gainera, ikasleak gainerako **beste ikasleen atzetik** aukeratuko luke. Nolanahi ere, **ezin izango da gairik aukeratu urria amaitu ostean.**

Bestalde, titulazioa lortzeko **GRALa besterik geratzen ez zaien ikasleek,** oraindik graduiko ikasleak diren neurrian, automatrikula erabil dezakete UPV/EHU ofizialki matrikulatuak jarraitzeko. Horrela, unibertsitateak eskaintzen dituen zerbitzuak eta eskubideak baliatu izango dituzte: aseguruak, GAUR...

GRALaren zuzendariak graduan irakaskuntza duen sailen batekoek izan behar dira. Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia. Ikasleak, praktika hitzarmen baten barruan, GRAL osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu,

zuzendaria unibertsitateetik kanpokoan izan ahalko da, baina kasu horretan zuzendarikide bat egon beharko da, graduaren eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.

Behin gaia aukeratuta eta zuzendaria eslehituta, ikasleak bere zuzendariarekin adostutako lan ildoari jarraikiz garatuko du lana. Alde horretatik, **garrantzitsua da kontuan hartzea GRAL prozesuan ikasleak era autonomoan jokatzeko espero dela, hau da, bera jartzea harremanetan zuzendariarekin eta arduraz jokatzeko prozesu osoan.**

## 2.2. Lana ADDI gordailuan uztea

Behin zuzendariaren **oniritzia lortuta, ikasleak ADDIra igotzea ahal izango du lana.** Horretarako, ikastegiaren webgunean argitaratutako datak eta prozesuaren gida hartu beharko ditu kontuan.

Zer da ADDI?

**Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala** da. Haren helburua da Euskal Herriko Unibertsitateko irakaskuntzaren eta ikerketaren ekoizpen intelektuala sarbide irekiaz antolatu, artxibatu, zaindu eta hedatzea. Beraz, ADDIn gordetzen dira doktorego eta masterretako tesiak, GRALak, zientzia artikulatuak, monografiak, liburuetako kapituluak, irakasmaterialak, etab.

### **Matrikula, lana ADDIra igotzea eta defentsarako eskaera egitea**

- GRALen matrikulatu ahal izateko, ezinbestekoa da ikasketen planeko gainerako irakasgai guztiak gaindituta eta espedientera pasatuta edukitzea.
- GRALen matrikula webgunean argitaratutako datetan egingo da, GAUREn bitartez eta AUTOMATRIKULA modalitatean.
- GRALen matrikula egin ondoren, defentsarako eskaera egin behar da GAUREn bertan. Eskaera egitea **ezinbestekoa da** epaimahaiaren aurrean defentsa egiteko.
- Defentsa eskaera GAUREn egitean, **ezinbestekoa da GRALaren izenburu zehatza grabatzea** eta hizkuntza aukeratzea.

- Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi izateko.
- **Zuzendariarekin adostutako lanaren azken bertsioa PDF formatuan ADDira igo beharko da.**
- Ikasleak ikasturtearen barruan lana defendatzen ez badu, edo defentsa eginda gainditzen ez badu, berriz matrikulatu beharko du GRALa hurrengo ikasturterako.
- Ikasleak gainerako irakasgai guztiak gainditzen baditu, eta **GRALa egin gabe uzten badu, hurrengo ikasturtearen hasieran GRALa matrikulatu beharko du** derrigorrez. Bestela, ez du ikaslea izaten jarraituko, eta galduko ditu unibertsitateak ikasleei aitortzen dizkien eskubideak.

## 2.3. Defentsa

1. GRALaren defentsa saio publikoan egingo da.
2. Ikasleak hiru irakaslek osatutako epaimahai baten aurrean defendatuko du lana. Irakasle horietako bat GRALaren zuzendaria izango da. Posible den heinean, epaimahaia sail desberdinetako kideek osatuko dute.
3. Defentsarako lekua, eguna eta ordua, ahal dela, astebete lehenago jakinaraziko zaizkio ikasleari.
4. Defentsa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin daiteke. Nolanahi ere, **hizkuntza berean idatzi eta defendatu beharko da lana.**

### 2.3.1 Epaimahaiaren akta

Defentsaren ostean epaimahaiak akta egingo du (fakultatearen webgunean eskura daiteke eranskina). **Ikasleak lehen deialdian gainditzen ez badu,** epaimahaiak txosten bat bidaliko dio, bigarren deialdiari begira lana hobetzeko gomendioekin. **Ikasleak bigarren deialdian gaindituko ez balu, prozesu osoa errepikatu beharko luke.**

### 2.3.2. Kalifikazioa berrikusteko eskaera

GRALen berrikuspenak edo erreklamazioak UPV/EHUko ebaluazio arauetara jarraikiz egingo dira (fakultatearen web orrian daude ikusgai). Kasu honetan, ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren berrikuspena lehenengo

instantzian berak egingo du, eta bigarren instantzian ikastegiko Erreklamazio Batzordeak ebatziko du; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari.

### **3. PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK**

#### **3.1. Zuzendariaren eginkizunak**

- GRALaren Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Ikasleari gaia zehazteko aukera posibleak eskaintzea, ezarritako urratsak betez (izenburua, deskribapena, helburuak, egin beharreko lanak, materiala, etab.).
- Ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea.
- Ikaslea gidatzea lana egiteko prozesuan.
- Kontuan hartzea unibertsitateko araudietan eta ikastegiaren barne akordioetan aurreikusten diren ikasleen egoerak eta haiei buruz behar den malgutasunaz jokatzeko.
- Lanaren prozesua eta edukia ebaluatzea.
- Ikasleak defentsarako eskaera egin duela egiaztatzea.
- Defentsaren aurretik, GRALaren ebaluazio txostena betetzea eta GAURera igotzea.
- Egiaztatzea ikasleak ADDira igotakoa adostutako GRALaren azken bertsioa dela eta, hala bada, prozesua onestea; adostutako bertsioa ez bada, aldiz, lana bidaltzeko onespena ukatzea.
- Beste epaimahaikideekin defentsarako eguna, ordua eta lekua adostea.
- Ikasleari eta ikasteko teknikariari jakinaraztea defentsarako eguna, ordua eta lekua.
- Ikasleari defentsaren entsegu bat egiteko aukera eskaintzea.
- Ikasleak defentsa grabatzeko eskaera eginez gero, horretarako baliabideak eskuratzea (atezaintzan).
- Epaimahaietan parte hartzea.
- Epaimahaiaren aktan jasotako kalifikazioa GAURen grabatzea eta espedientera pasatzea. Honetaz gain, akta horiek ikastegiko teknikariari eskaneatuta bidali.

#### **3.2. Ikasleen eginkizunak**



- GRALaren Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- GRALa prestatzeko behar diren lanak egitea: gaia hautatzea (lan proposamena prestatzea), planifikazioa (lanak entregatzeko egutegia prestatzea), garapena (jarraipen eta berrikuspen txostenak), lana entregatzea, aurkeztea eta defendatzea. Horrek esan nahi du:
  - GRALa egiteko lanean inplikatzeko, ekarpenak eginez eta egin beharreko atazak ikuspegi propioaz eta autonomiaz burutuz.
  - Unibertsitateko emaila erabiltzea, izan ere, derrigorrezko tramiteak egiteko beharrezkoa izango baita.
  - GRALa ebaluatu eta hobetzeko prozesuetan parte hartzea.
  - GRALaren defentsa eskaera egitea GAURren bitartez.
  - GRALa ADDira igotzea.
  - GRALaren defentsa grabatzea nahi izanez gero, zuzendaria jakitun jartzea defentsa eguna baino astebete lehenago gutxienez.
  - Lehen deialdian gairatu ezean, epaimahaiak eskainitako txostena kontuan hartzea, eta beharrezko hobekuntzak egitea hurrengo deialdirako.
  - Asebetetze inkesta betetzea defentsa egunean.

### **3.3. Dekanordetzaren eginkizunak**

- GRALaren gidan jasotakoa bete dadin ahalbidetzea.
- Epaimahaien zerrendak egitea.
- Epaimahai bakoitzeko burua, idazkaria eta kidea izendatzea. Karguok pertsona berberak beteko dituzte epaimahai bakoitzari esleitutako defentsa guztietan.

### **3.4. Epaimahaiko buruaren eginkizunak**

- Web Untisen defentsak egiteko gela erreserbatzea.
- Defentsa baino hamar egun lehenago ikastegiko teknikariari jakinaraztea epaimahaiak defentsarako jarritako eguna, ordua eta lekua, datuak sistema informatikoan sar ditzan.
- Ikasleek asebetetze inkesta bete dezaten ahalbidetzea.
- Ikasleak 9 puntu edo gehiago ateraz gero kalifikazioan, lan akademikoen

zabalkunde eskubideak ADDIri lagatzeko baimena sinatu beharko du. Ikasleak erabakiko du ADDIren bidez lana zabaltzeko baimena ematea ala ez.

### **3.5. Epaimahaiaren eginkizunak**

**Epaimahaia ezin da inoiz hiru kide baino gutxiagorekin aritu.** Arrazoi justifikaturen bategatik irakasleren bat ezin bada joan, bere sailak ordezeko bat izendatu beharko du.

#### **3.5.1. Epaimahaiaren eginkizunak**

- GRALaren Gida ezagutzea eta errespetatzea.

#### **3.5.2 Epaimahaiaren protokoloa**

- Behin epaimahaikide guztiak eta ikaslea defentsa saio publikorako bilduta, epaimahaiko buruak hasiera emango dio ekitaldiari, eta ikasleari gogoraraziko dio jarraitu beharreko prozesua: gehienez ere hogeita minutu izango dituela aurkezpena egiteko eta, ondoren, epaimahaikideek komentarioak, iradokizunak edota galderak egingo dizkiotela.
- Ikasleak aurkezpena amaituta, epaimahaiko buruak hasiera emango dio eztabaidari.
- Epaimahaiko buruak bermatu beharko du ikaslearen aurkezpena eta ondorengo eztabaida begirunez egingo direla; horretarako, egoki ikusiz gero, hitza eten ahal izango die ikasleari edo epaimahaikideei.
- Behin defentsa bukatuta, epaimahaiko buruak ikasleari eta publikoari aretotik irteteko eta kanpoan apur bat itxaroteko eskatuko die, epaimahaiak kalifikazioa erabaki dezan, bere ebaluazio txostenetan oinarrituta.
- Kalifikazioa adostuta, idazkariak akta egingo du.
- Gradu Amaierako Lanaren azken kalifikazioak horretarako modua emango balu, epaimahaiak ohorezko matrikula emateko proposamena egin lezake. Jasotako proposamen guztiak aztertuta, GRAL dekanordeak erabakiko du zeintzuk onartu, Fakultateak horretarako adostuak dituen irizpideen arabera. Titulazio bakoitzean ohorezko matrikula bat eman ahal izango da hogeita ikasleko.
- Akta eginda, idazkariak sartzen utziko die ikasleari eta publikoari eta, guztiak zutik daudela, epaimahaiko buruak epaimahaiaren akta irakurriko du.

- Idazkariak dokumentazioa eskaneatuta bidaliko dio teknikariari (epaimahaiaren ebaluazio txostenak, epaimahaiaren akta eta, hala badagokio, lan akademikoen zabalkunde eskubideak ADDIri lagatzeko baimena).

## **4. PROZESU AKADEMIKOA**

### **4.1. Gaia aukeratzea**

Idea da GRALaren gaia interesgarria izatea, ikasleak bere prestakuntza finkatzeko eta bere etorkizuneko arlo profesionalean sakontzeko aukera gisa ikus dezan. GRALak askotarikoak izan daitezke: didaktika eta hezkuntza arloko proposamenak; eskola ingurunean eta eskolaz kanpokoan egindako landa lanak; hezkuntzako testuinguru desberdinetako proiektu berritzaileen azterlan deskribatzaileak; hezkuntzari lotutako arazoan azterlanak; hezkuntza arloko esku hartze proposamenak; irakaskuntzarako baliabideen inbentarioak; material didaktiko berritzaileen azterketa eta prestaketa, eta abar.

### **4.2. Tutorizazioa**

GRALa egiteko prozesuak ia ikasturte osoa irauten du, eta jarraipena tutoretzen bidez egingo da. Tutoretza horien eginkizun nagusia ikasleen jarduera autonomoa gidatzea eta doitzea da. Hala ere, GRALa egitean sortzen diren arazoak planifikatzea, garatzea eta ebaztea ikasle bakoitzaren ardura izango da. Tutoretzetan landu beharreko edukiak askotarikoak izan daitezke: iturri bibliografikoak bilatzea, datu-baseak, idatzizko lanaren egitura, gai etikoak, estilo-eskuliburua, ahozko aurkezpenaren forma, defentsa prestatzeko moduari buruzko aholku praktikoak eta abar.

### 4.3. Faseak, gaitasun espezifikoak eta ikaskuntzaren emaitzak

Lana	Faseak	Gaitasun espezifikoak	Ikaskuntzaren emaitzak	GAIT. (BOE)
1. HASIERAKO TXOSTENA	1. GAIA AUKERATzea	Gaia zehaztea eta lana gidatuko duten galdera eta/edo helburuak jartzea.	Txosten idatzian galdera eta helburu batzuk proposatu ditu. Galderak eta helburuak arrazoitu ditu eta harremanak ezarri ditu beren artean, eta loturak bilatu ditu aurreko bizipen, esperientzia eta hausnarketekin. Lana garatzeko proposamen bat aurkeztu du. Gaia garatzeko eskema bat prestatu eta zehaztu du.	1,3
		Aukeratutako gaiari buruzko hasierako bilaketa dokumentala egitea.	Gaiaren nagusiak identifikatu ditu eta haiek hautatzeko prozesua azaldu. Bilaketaren historiala eta emaitzak deskribatu ditu. Argudioekin aukeratu ditu erreferentzia dokumental egokiak, gaiaren esparru teorikoa eraikitzeko.	2
	2. PLANGINTZA	Gradu Amaierako Lanaren funtsezko elementuen betekizuna identifikatzea eta ulertzea, eta aplikazio testuinguru batekin lotzea.	Behin egituratuta eta antolatuta lanari forma emango dioten elementuak identifikatu ditu Lotura koherenteak ezarri eta justifikatu ditu aukeratutako gaiaren eta proposatutako aplikazio testuinguruaren artean. Lanaren aplikazio testuinguru modu arrazoituan zehaztu du.	1,2,3
		Lanaren funtsezko elementuak modu justifikatuan antolatzea	Lanaren egitura definitu, ordenatu eta justifikatu du. Lanaren fase bakoitzean erabili beharreko baliabideak aurreikusi ditu.	2,3
		Lana egiteko faseak aurreikusi eta denboran ordenatzea.	Lanaren faseak modu justifikatuan aurreikusi eta ordenatu ditu. Kronograma baten bidez zehaztu ditu lanaren une mugarriak. Zuzendariarekin adostu ditu lanaren faseak eta haien kronograma.	3
		Lanaren egoerari buruzko txostena aurkeztu eta defendatzea zuzendariaren eta tutoretzako kideen aurrean.	Gaiaren garrantzia edo interesa justifikatu du, balizko aplikazio arloarekin harremanetan jarritz. Lanaren funtsezko elementuak zentzuz aurkeztu eta elkarlotu ditu Modu arrazoituan aurkeztu ditu lana egiteko faseak, eta dagokien kronograma Ziurtasunez erakutsi ditu erabiliko dituen metodologia eta baliabideak	1,2,3,4

Lana	Faseak	Gaitasun espezifikokoak	Ikaskuntzaren emaitzak	GAIT. (BOE)
3. JARRAIPEN TXOSTENA	4. GARAPENA	GRALaren erreferentziako esparru teorikoa eraikitze dokumentazio iturriak aukeratzea	Gaiari buruzko erreferentzia nagusiak identifikatu ditu  Aukeratu duen informazioak lotura argia du lanaren helburu edo galderekin.	1,2
		Informazioa txertatzea esparru teorikoaren eraikuntzan	Aukeratutako informazio pertinentea erabili du gaia kokatzeko Informazioa diskurtso koherente batean txertatu du Esparru teorikoa lanarekin erlazionatu du.	1
		Datuak jaso, aztertu eta interpretatzea	Behar beste datu bildu ditu eta bilketa ordenatua izan da Datuak aztertu eta interpretatu ditu Argi aurkeztu ditu emaitzak  Ondorioak atera ditu emaitzetatik Proposatu ditu lan horrek izan litzakeen jarraipenak.	1,2,3
		Ahoz eta idatziz zuzentasunez aritzea, arloko hizkera zientifikoan trebetasuna erakutsiz, euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez	Idazkera akademikoaren jarraibide formalen arabera idatzi du azken bertsioa  Ahoz aurkeztu du lana bere kideen aurrean, txukun eta entzuleak kontuan hartuta Egin zaizkion galdera eta oharrei erantzun die, behar bezala argudiatuta	4

Lana	Faseak	Gaitasun espezifikokoak	Ikaskuntzaren emaitzak	GAIT. (BOE)
3. AURKEZPENA ETA DEFENTSA	4. ENTREGA ETA DEFENTSA PUBLIKOA	Zuzentasunez, koherentziaz eta modu ordenatuan transmititzea (bai ahoz bai bestelako komunikazio baliabideen bidez) lanaren emaitza nagusiak	Modu egokian arrazoitu du gaiaren aukeraketa. Bere lanaren ekarpen nagusiak esplikatu eta oinarritu ditu, izan dezaketen interesa bereziki nabarmenduz.  Lana argi eta modu ordenatuan aurkeztu du. Komunikaziorako beste baliabide batzuk (ez-hitzezkoak) erabiltzeak aberastu eta arindu egin du azalpena.  Denbora modu eraginkorrean antolatu du, eta lanaren puntu edo atalen garrantziaren arabera Erantzunak antolatu ditu epaimahaikideen galderen garrantziaren arabera, edo, bestela, beste irizpide koherente baten arabera.  Ziurtasunez eta koherentziaz erantzun du bere lanaren emaitzen inguruan.	4
		Modu egokian erantzutea epaimahaiaren galdera, zalantza edo argibide eskei	Egindako lanarekin koherente diren lan eta/edo ikerketa posibleak iradoki ditu.  Ziurtasunez eta koherentziaz erantzun du bere lanaren emaitzen inguruan.	1,2,3,4
		Etorkizunerako lan edo ikerketak proposatzea, egindako lanaren gaiarekin edo prozesuarekin lotura dutenak.		3

## **4.4. Idatzizko txostena**

GRALak gaiari eskatzen zaion sakontasuna, luzera eta berritasuna izan beharko du, aurreko taulan deskribatutako emaitzen arabera.

### **4.4.1 Egitura**

Sarreran aipatu den bezala, ikasleek GRAL mota desberdinak egin ditzakete, eta horren arabera egokitu beharko dute lanaren eskema. Orokorrean, eskema honi jarraitzea proposatzen dugu:

- Azala (1. eranskina)
- 20 lerroko laburpena (euskaraz, gaztelaniaz eta, ahal izanez gero, ingelesez).
- Aurkibidea
- Sarrera
- Justifikazio pertsonala: zerk bultzatu duen egilea GRAL hau egitera.
- Esparru teorikoa: gaiaren garrantzia eta ikerketaren egoera. Helburuak
- Metodoa
- Emaitzak
- Ondorioak
- Mugak eta hobekuntza proposamenak
- Erreferentziak
- Eranskinak

Irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak, unibertsitateko ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak ematen ditu, eta horiei jarraituz, GRAL guztietan ikasleek beren lanaren inguruko gogoeta bat egin beharko dute printzipio eta balio demokratikoen eta garapen jasangarrirako helburuen argitan.

Gogoeta hori 200 hitzekoa izango da gutxienez, eta atal espezifiko bat izango du testuan. Bertan, ikasleak azalduko du zer lotura duen bere GRALak balio horiekin eta garapen jasangarrirako helburuek ezartzen duten lan esparruarekin. Era berean, haiei buruzko ikuspegi kritikoa ere proposa dezake.

#### 4.4.2 Luzera eta formatua

Lanak **gehienez ere 40 orrialde izango ditu** (azala eta eranskinak kontuan hartu gabe). Arial 11, EHUSans 11 edo EHUSerif 11 letra tipoak erabili beharko dira. Lerroartea 1,5 cm-koa izango da, eta marjinak 2,5 cm-koak.

#### 4.4.3 Plagioa

Plagiorik edo adimen artifizialaren erabilerarik antzeman ez gero, ikasleak ezingo du jarraitu ez aukeratutako gaiarekin ez zuzendariarekin. Ondorioz, prozesu osoa errepikatu beharko du, eta gaia berriz ere aukeratu. Halaber, zuzendari berria jakinaren gainean jarriko da.

#### 4.5. Ahozko defentsa

Ikasle bakoitzak **gehienez 20 minutu** izango ditu aurkezpenerako. Defentsaren garrantzia kontuan hartuta, ikasleak ahalik eta ondoen, baina laburturik, azaldu beharko ditu GRALean landutako puntu nagusiak, bere ekarpen originalak nabarmenduz. Bukatu ostean, epaimahaikideen galdera, ohar edo iradokizunei erantzun die.

## 5. EBALUAZIOA

### 5.1. Ebaluatzaileak

GRALaren zuzendariak kontuan hartuko du ikaslearen parte hartzea lanaren planifikazioan, mintegietan eta tutoretza saioetan. Alde horretatik, kontuan hartu beharko ditu unibertsitateko arautegiak eta fakultatearen akordioak, behar besteko malgutasunaz jokatzeko. Era berean, hasierako txostena eta jarraipeneko baloratzeko, kontuan hartuko ditu zuzendariaren ebaluazio txostenean agertzen diren deskriptoreak.

Aurkezpena eta defentsa ebaluatzeko, **epaimahaiak epaimahaikide bakoitzaren ebaluazio txostena erabiliko du** (webgunean eskuragarri). **Epaimahaikide bakoitzak bere ebaluazio txostena bete** beharko du. Azkenik, **epaimahaiak adostutako kalifikazioa epaimahaiaren aktan jasoko da.**

### 5.2. Kalifikazioa

GRALaren azken kalifikazioa era honetan lortzen da:

- Zuzendariaren ebaluazio txostena:%40
- Epaimahaiaren ebaluazio txostena: kide bakoitzak % 20 (guztira, azken notaren % 60)

**GRALa gainditzeko, zuzendariaren ebaluazio txostenak eta bi epaimahaikideren txostenek aldekoak izan beharko dute.**

Gradu amaierako lanetan gehienez ikasleen % 5i eman ahal izango zaie **ohorezko matrikula**, kontuan hartuta **fakultateak** antolatutako defentsa aldi bakoitzean (titulazio bakoitzean) matrikulatu den ikasle kopurua. Hezkuntza eta Kirol Fakultatean adostutakoaren arabera, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ohorezko matrikulak emateko:

1. GRALaren azken kalifikazioa, epaimahaiaren aktan agertzen dena.
2. Ikaslearen espediente akademikoa.



### 5.3. Ebaluazio txostenak

#### 5.3.1 Zuzendariaren ebaluazio txostena

ZUZENDARIA: .....

IKASLEA: .....

ESPEZIALITATEA: .....

1. GAIA AUKERATZEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1.1. Lana gidatzeko galderak eta helburuak proposatu ditu.										
1.2. Lana gidatzeko galderen eta helburuen arteko loturak egin ditu, eta bere aurreko bizipenekin, esperientziekin eta hausnarketekin.										
1.3. Gaia lantzeko eskema egin du.										
1.4. Gaiaren deskriptore giltzarriak zehaztu ditu.										
1.5. Esparru teorikoa eraikitzeko egindako bilaketaren historiala deskribatu du, eta egoki justifikatu ditu aukeratutako erreferentziak.										
<b>BALORAZIO OROKORRA</b>										

2. PLANGINTZA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.1. Lanaren egitura definitu, ordenatu eta justifikatu du.										
2.2. Zuzendariarekin adostu ditu lanaren faseak eta kronograma.										
2.3. Gaiaren garrantzia edo interesa justifikatu du, balizko aplikazio arloarekin harremanetan jarritz.										
2.4. Lanaren fase bakoitzean erabili beharreko baliabideak aurreikusi ditu eta modu arrazoituan azaldu ditu.										
2.5. Erabiliko duen metodologia aurkeztu du.										
<b>BALORAZIO OROKORRA</b>										

<b>3. GARAPENA</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>
3.1. Lana gidatzeko galderak eta helburuak kontuan hartuta, ondo aukeratu du informazioa.										
3.2. Esparru teorikoa aberatsa da eta egungo erreferentzia nagusiak jasotzen ditu.										
3.3. Diseinua eta asmoak behar bezala zehaztu ditu.										
3.4. Datuak (halakorik bildu badu) aztertu eta interpretatu ditu.										
3.5. Argi aurkeztu ditu emaitzak eta ondorioak.										
3.6. Lanaren mugak aurkeztu ditu eta etorkizunerako lanak proposatu ditu.0}										
3.7. Diskurtso koherentea egin du eta estiloa akademikoz idatzi du lana.										
3.8. Erabilitako argumentazioaz, kritikarako eta hausnarketarako gaitasun egokia erakutsi du.										
3.9. Entseguan aurkezpen ordenatua egin du eta gero egoki erantzun die egindako galdera edo oharrei.										
<b>BALORAZIO OROKORRA</b>										

**OHARRAK:**

.....  
 .....  
 .....  
 .....

**KALIFIKAZIOA**

Lekua eta data:

.....

Zuzendariaren sinadura

(Ikastegiko zigilua)

### 5.3.2 Epaimahaikide bakoitzaren ebaluazio txostena

GRADU AMAIERAKO LANAREN DEFENTSA										
EPAIMAHAIKO KIDEA:										
GRADUA:										
IZENBURUA:										
ZUZENDARIA:										
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Lana estandar akademikoen arabera da, eta GRALaren Gidako puntu nagusiak betetzen ditu.										
2. Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia izan da bai lanean eta bai aurkezpenean.										
3. Lanaren aurkezpena aberastu du bestelako bestelako baliabide komunikatiboak (ez-hitzezkoak) erabiliz.										
4. Denbora ondo kudeatu du, eta lanaren atal edo puntuen garrantzi erlatiboaren arabera.										
5. Epaimahaikideek egindako galderen garrantziaren arabera antolatu ditu erantzunak, edo, bestela, irizpide koherente baten arabera.										
6. Interesez eta begirunez hartu ditu galderak, eta uneoro testuinguru akademikoari dagokion bezala jokatu du.										
<b>ZENBAKIZKO KALIFIKAZIOA</b>										
<b>OHARRAK</b>										

Lekua eta data: .....

Sinadura

## 6. DOKUMENTAZIOA

Jarraian zehazten da GRALa egiteko eta defendatzeko prozesuan ezinbestekoa den dokumentazioa. Garrantzi handikoa da dokumentuak behar bezala betetzea, sinatzea eta ezarritako epeetan aurkeztea. **Dokumentazioa fakultateko webgunean (GRALerako atalean) eskura daiteke.**

### 6.1. Ikasleak

- Ikasleak epaimahaiaren aurreko defentsa grabatzea nahi izanez gero, bere zuzendariari honako hau aurkeztu beharko dio:
  - "Grabazio eskaera" izeneko dokumentua (web orrian eskuragarri).

### 6.2. Zuzendaria

- Fakultateko zuzendari bat izateaz gain, kanpoko zuzendarikide bat izanez gero, lana hasi aurretik eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko GRALaren zuzendariaren onepenarekin, honako hau bete eta entregatu behar da:
  - Zuzendarikideen onarpena" izeneko dokumentua (web orrian eskuragarri).
- Ahozko oniritzia eman beharko dio ikasleari.
- Ebaluazio txostena bete eta sinatu beharko du, eta GAURera igo.

### 6.3. Epaimahaikideak

Epaimahaikide bakoitzak bere ebaluazio txostena bete beharko du eta, guztiek batera, epaimahaiaren akta (webgunean eskuragarri).

Idazkariaren ardura izango da epaimahaiaren akta (web orrian eskuragarri) epaimahaira eramatea. Defentsa amaitu ondoren, akta eskaneatu eta ikastetxeko teknikariari bidali beharko dio.